

Literatura, dantza eta antzerkiaz gozatzeko aukera izango da irailean, besteak beste

Amaitu da uda, eta iraila modu egokian hasteko asmotan, udazkeneko programazioa bete-betea dator, adin tarte guztietarako ekintzekin. Datorren asteburuan, bigarren eskuko azokaz gain, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bisita izango dute txikiak.

HERNANI UDAZKEN PROGRAMAZIOA

Indartsu dator aurtengo iraila, izan ere, udazkeneko programa osatzen duten hainbat eta hainbat ekintza, saio eta emanaldi antolatu dira. Gainera, Biteriko ikastaroetan alde aurretik izena emateko epea, etzi amaituko da. Biterira bertaratuz egin daiteke, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean. Online ere egin daiteke, web.hernani.eus/kultura webgunean sartuz.

Hilaren 14ra arte, etxeko txikiak, auzoetan egingo diren tailerretan parte hartzeko aukera izango dute, eta izena emateko aukera oraindik martxan da. Aipatutako tailerrak, auzo elkarteetan izango dira.

Datorren astebururako, bi ekintza antolatu dira. Goizetik, bigarren eskuko azoka egongo da, eta arratsaldeko 16:30etan, Hernaniko herritar txikientzako ikuskizuna eskainiko dute hain maiteak diren Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, Atsegindegina. Sarrerak eskuragai daude, www.katxiporreta.eus webgunean edo Musika Eskolan.

Hilaren 15ean berriaz, emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik mintegia eskainiko da. Gidaria Kattalin Miner



Datorren asteburuan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek emanaldia eskainiko dute, Atsegindegina. Argazkia: Kulturklik.

izango da, eta solasaldia Mari Luz Estebanek egingo du. Bi egunetara, hau da hilaren 17an, *Ene bal!* antzerkiaz gozatzeko aukera izango dute hernaniarrek. Arratsaldeko 20:00etan izango da Biterin, eta sarrerak bihurtik aurrera egongo dira salgai, 7,5 eurotara.

Hilaren 18rako Merkataritza festa ere antolatu du Berriak Elkarteak. Horrez gain, Hernaniko Musika Bandaren kontzertua ere eskainiko da 19an, Karabellen.

Euskaraldiari lotutako bi ekintza ere izango dira irailean; 23an lehena, *Euskararen bidegurutzetik* liburuaren aurkezpena izango da, eta 25ean bigarrena, bertsoa-dantza ekimena, Dobera Euskara Elkartearen eskutik antolatua, biak. **K**

Iraileko kultur ekintzak

14ra arte Haurrentzako tailerrak auzoetan. Izena emateko epea zabalik. Auzo elkarteetan.

9 Literatur Solasaldia, gaztelaniaz. Ikasturtearen aurkezpen saioa. *Leonora* Elena Poniatowaka, eta *Muerte Venecia* Thomas Mann. Gidaria: Amaia Garcia. 19:30, Biterin.

12 Bigarren Eskuko Azoka

12 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia. Hernani Musika Eskola Publikoak antolatua. 16:30, Atsegindegina. Sarrerak: www.katxiporreta.eus eta Musika Eskolan

15 Mintegia. Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik, ikasturtearen aurkezpena. Solasaldia Mari Luz Estebanekin. Gidari: Kattalin Miner. 19:00, Biterin.

17 Antzerkia. *Ene bal!* Txalo pro-

dukzioak. 20:00, Biterin. Sarrerak salgai, bihurtik aurrera, 7,5 euro.

18 Hernaniko Merkataritzaren Festa. Berriak Elkarteak sortuta.

19 Hernaniko Musika Bandaren kontzertua. 19:00, Orbegozo Plaza, Karabel auzoa.

19 Nazioarteko eta euskal sagardoaren dastaketa. Antolatzailea: Euskal Sagardoa Jatorri Deuna. Goiz eta arratsaldez, Atsegindegina. 5 euro.

19 Musika. Oreka TX. 20:00, Atsegindegina. Edukiera mugatua. Gonbidapenak Biteriko sarreran.

20 Dantza. Maurizia naz. Aukeran dantza konpainia. 19:30, Atsegindegina. Edukiera mugatua. Gonbidapenak Biteriko sarreran.

20 Artisanu Azoka. Gabiltza Elkarteak. 11:00, Atsegindegina.

20 Pelota eta Pala partiduak. 11:30, Kiroldegiko frontoian.

22 Ipuin kontaketa. Maite Franko ipuin kontalaria. 4 eta 6 bitarte-

ko haurrentzat, gurasoek lagunduta. 17:30etan, Biterin. Edukiera mugatua. Haurrek heldu batekin egon behar dute. Gonbidapenak, Biteriko sarreran.

22 Literatur Solasaldia, euskeraz. Ikasturtearen aurkezpen saioa. *Hildakoez ez dute hitz egiten*, Arthur Schnitzler. Gidaria: Ane Muyoz. 19:00 Biterin.

23 Euskaraldia. Liburu aurkezpena: Euskararen bidegurutzetik. Kike Amonarriz. Antolatzailea: Dobera Euskara Elkarteak. 19:00, Biterin.

25 Euskaraldia. Bertso-dantza. Gorria. Miren Amuriza bertso-laria eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzaria. Antolatzailea: Dobera Euskara Elkarteak. 19:00, Biterin.

26 Mugarri bisita

30 Hitz-andana. Bakarriketa. Esnatu naiz. Antoni Mutiloaren eskutik. 20:00, Biterin. Gonbidapenak, Biteriko sarreran.

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 - beheko ezkerre
MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte
KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA
Helduen ikasketak bereziak
eta bakarkakoak dira.
Taldea txikietan egingo da lan.
IMANOL KAMIO
musika eskola
943 33 12 33 - 637 85 79 62

MENDIKUZE
OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

Gerizpe
Kafeetogia-Okindegia
682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga

sulabe
Valella
okindegia
Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

ISABEL
Janari denda

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67



GAUR Igandean giro motelarekin jarraituko dugu ipar partean eta noizean behin euri txikia egingo du. Hodeiak barnealdera iritsiko dira, baina lurraldearen hegoaldean aterai eutsiko dio. **Min.16° / Max.19°**



BIHAR Astelehenean oraindik hodeiak egongo dira, batez ere ipar partean eta mendebaldean, eta egunaren lehen zatian euri apur bat egin dezake ipar isurialdean. Egunaren bukaeran zerua nahiko garbi geratuko da. **Min.13° / Max.19°** (euskaletan)



DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA



Hernaniko Udala



Astigarraga Udala



Euzko Udala



GOZIETAKO UDALA



ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Odriozola** Idiazabal, 18 (Urniet) **943 334014** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



EUSKO LEGEBILTZARIA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Finalaurrekoetara sailkatu dira, Juananeak eta Endika

Juananeak, Endikari irabazi zion 29 eta 30 Kutxabank Torneoko finalerdietako ligaxkako partidari, eta Barrenetxea IV. kanpo gelditu da.

HERNANI ERREMONTEA

Atzo jokatu zen, Kutxabank Torneoaren barruan finalerdietako ligaxkaren bosagerren partidua, eta Juananeak lortu zuen garai-pena. Izan ere, 29 eta 30 irabazi zion Endikari. Hala ere, emaitza horrekin, biak sailkatu dira finalaurrekorako, eta 2019ko txapelduna, Barrenetxea IV.a, txapelketatik kanpo geratu da. Gainera, Juananeak finalera zuzenean sailkatzeko aukera du, Urriza 16 punturekin gelditzen bada. **K**



Juananeak eta Endika finalaurrekorako sailkatu dira.

2021eko udal egutegia osatzeko argazki lehiaketa, laister martxan

Datorren astetik, urriaren 16ra arte aurkez daitezke 2021eko udal egutegia osatzeko argazkiak, eta 13 izango dira sarituak.

HERNANI UDAL EGUTEGIA

Iritsi da 2021eko udal egutegia osatuko duten argazkiak auke-ratzeko garaia. Aurtengoan, ez da aurrez aurreko aurkezpenik egongo, Covid-19ak sortutako

pandemia dela medio.

Aurtengo gaia, *Hernani mugimenduan* izango da, «Hernani dabilen herria da, herri dinamikoa, zalantzarik gabe eta hori islatu nahi du egutegiak» jakinarazi du Udalak. Ohiko

moduan, 13 argazki hautatuko dira, hilabete bakoitza ilustratzeko bana eta azalekoa, eta horretarako egile bakoitzak 5 argazki aurkez ditzake. Argazki saritu bakoitzak, 40 euroko erosketa txartel bat lortuko du, «herriko sormena eta herriko merkataritza uztartu nahian».

Urriaren 16ra arte aurkez daitezke lanak, eta datorren astean martxan izango da argazkiak bidaltzeko, formularioa. **K**

«EH Bilduren 3 zinegotzik EAJren 4 zinegotzik baino gehiago kobratzen dute»

EH Bilduren gobernu taldeak aurreko jeltzalearekin alderatuta % 15 gehiago irabazten du, nahiz eta bat gutxiago izan soldatapean.

ASTIGARRAGA EAJ-PNV

EH Bilduk Astigarragan egindako kudeaketaren inguruko datuekin «kezkak» jarraitzen du EAJ-PNV taldeak. Soldatei dagokienez, alderdi jeltzaleak salatu du gaur egun EH Bilduko hiru zinegotzik EAJ-PNVko lau zinegotzik aurreko legegintzaldian baino gehiago irabazten dutela, zinegotzien soldatak: «91.858,87 euro eta 79.436,84 euro, hau da, %15 gehiago, nahiz eta pertsona bat gutxiago izan soldatan».

«Orain arte, gobernu-taldeko bi pertsona, alkatea eta idazkaria, ziren Udalaren soldata jasotzen zutenak. Hala ere, irailetik aurrera, alkateordeak, kultura, euskara eta jai arloetako arduradun izendatua, bai eta berdintasun eta partaidetza arloetako arduradun ere, aurrekoekin bat egin du arduraldi partzialeko erregimenarekin: 21.832,93 euro gordin kobratuko ditu urtean. Azken osoko bilkuran hartu zuten erabakia, EAJ-PNVren kontrako botoa jaso arren».

Alderdi jeltzaleari «kezkaga-

ria iruditzen zaio soldatak %15 igotzea aurreko legealdiarekin alderatuta, are gehiago egungo krisi ekonomikoa kontuan hartuta, pandemiaren ondorioz. Gainera, EH Bilduren antolaketak eta aurreikuspen falta azpimarratu du; izan ere, alkatetzak eskuratu eta urtebetara baino ez dira aldaketak egiten ari organigrama, eta, ondorioz, diru publiko gehiago ordaintzen dute soldatetan.

Hala ere, EH Bilduren xahuketa urrunetik datorrela salatu dute. Xabier Urdangarin alkateak aurreko alkate Zorione Etxezarragak baino % 76,55 gehiago jasoko zuela salatu zuten: 53.899,06 euro gordin urtean, 30.529,66 euroren aldean. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



PETRA SAROBE VERGARA

(Juan Zabalen alarguna)
Herenegun hil zen, 91 urte zituela

- Goian bego -

Haren seme-alabak: Eduardo, Maria Angeles; bilobak: Ibon eta Ainhoa, Gorka; birlobak: Aiora eta Jone; anai-arrebak: Jose Ramon (†) eta Felisa, Bittori (†) eta Joxe Mari (†), Jose Manuel (†), Joakin (†) eta Margari, Tomasa (†) eta Jose Luis (†), Ana Mari eta Segundo (†), Felisa (†) eta Blas (†); ezkon anai-arrebak: Maritxu (†) eta Joxe (†); ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideak eta Lourdes.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

HERNANIN, 2020ko irailaren 6an

Oharra: Familiak **HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN** gaur, igandea, goizean 10:30-12:30 jasoko du.



ENRIQUE AYERBE ECHEBARRIA

Atzo hil zen, 77 urte zituela

- Goian bego -

Haren emaztea: Lurdes Etxeberria; seme-alabak: Beñat, Maialen (†) eta Gorka; anai-arrebak: Rafa (†) eta Mari Feli Aramburu, Miguel eta Ana Mugica; ezkon anai-arrebak: Martin eta Pili Irizar, Jose Mari (†), Ramon eta Adeli Abad (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HERNANIN, 2020ko irailaren 6an

Oharra: Gorpua **HERNANIKO ORBEGOZO TANATORIOAN** egongo da gaur, igandea, gaueko 21:00ak arte.



ENRIQUE AYERBE ECHEBARRIA

Osaba, ez ditugu inoiz ahaztuko zure irribarre txikia, begirada goxoa eta zure ahotsa eta hizkera. Eskerrik asko!

ARITZ, MAITE, PERU, AMAGOIA, TXAPETE (†), AIUR, AGURTZANE, URTZI, ARAITZ, EKHI, IREI, ITXASO, IXIDRO, ENAITZ ETA ARKAITZ

Hernanin, 2020ko irailaren 6an



ENRIQUE AYERBE ECHEBARRIA

-Goian bego-

Besarkada haundi bat

ZURE HERRIKO LAGUNAK. ANGEL ETA BEGOÑA, XABIER ETA ANA, KEPA ETA ARANTXA

Hernanin, 2020ko irailaren 6an



PAKO VALERO MUÑOZ

Besarkada haundi bat
familiari

CD HERNANI

Hernanin, 2020ko irailaren 6an

IRAGARKI MERKEAK

Goiz Euzki Bilgune Sozialak fisioterapia tituluduna behar du. Informazio gehiago 670415133 telefonoan.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**